

Ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa Zestoako liburutegian

Bihar eta hilaren 31n burutuko da, liburutegiaren ditu 25. urteurreneko ekitaldien baitan

Bihar hasita, bi eguneko ikastarotxo (26 eta 31ean) burutuko da Zestoako Udal Liburutegian, 18:00ak eta 20:00ak bitartean.

Zestoako liburutegiak 25 urte betetzen ditu, eta hori dela medio zenbait ekimen antolatu ditu, lehenengoa 'Ipuinak nola kontatu' ikastaro hau izango delarik. Plaza mugatuak izango dira, eta herritarrek lehentasuna izango dute, baina ala ere, badaezpada, interesatuek liburutegitik pasatzea edo deitzea (943-147816, arratsalde) gomendatzen da, oraindik lekua egotea oso posible baita.

Ikastaro hau guraso, irakasle eta begiraleentzat egokia izan daiteke bereziki, eta Pello Añorga ipuin kontalariak emango du. Ikastaroko orduetan, zaintza zerbitzua egongo da gaztelekuan, 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat. Beraz ez dago aitzakiarik ikastaroan parte hartu eta ipuinak kontatzen ikasteko.

Honez gain, jakin, maiatzak 31n, ipuin kontaketa izango dela liburutegian, arratsaldeko 17:00etan.